AGINTARIAK ETA LANGILERIA

Prestatu eta trebatzeko ikastaroak

HERRI ADMINISTRAZIO ETA JUSTIZIA SAILA

5509

EBAZPENA, 2013ko abenduaren 18koa, Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeko zuzendariarena, hizkuntza-eskakizunak egiaztatzeko saioetan azterketa gainditu dutenen behin-behineko zerrenda argitaratzen duena.

Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeko zuzendariak 2013ko abuztuaren 19ko Ebazpenaz (2013-09-09ko EHAA, 171. zk.) hizkuntza-eskakizunak egiaztatzeko probetarako deia egin zuen. Deialdi horri dagokion lehenengo azterketaldia bukatu ondoren, hizkuntza-eskakizunen bat egiaztatu duten azterketarien behin-behineko zerrenda argitaratzen da honen bitartez. Hortaz, hau

EBAZTEN DUT:

Lehenengo artikulua.– 2013ko abuztuaren 19ko deialdiari dagokion ohiko azterketaldian hizkuntza-eskakizunen bat egiaztatu duten azterketarien behin-behineko zerrenda adiera ematea.

Bigarren artikulua.– www.ivap.euskadi.net/r61-euskera/es helbide elektronikoan eta ondoren aipatzen diren lekuetako iragarki-tauletan zerrenda horren argitaratzea agintzea:

Vitoria-Gasteiz: HAEE, Donostia kalea 1, 01010 PK.

Bilbao: HAEE, Errekalde zumarkalea 18, 48009 PK.

Donostia: HAEE, San Bartolome kalea 28, 20007 PK.

Oñati: HAEE, Unibertsitateko etorbidea 20560 PK.

Hirugarren artikulua.– Azterketa gainditu dutenen behin-behineko zerrenda argitaratzen den biharamunetik hasita, interesatuek 14 egun naturaleko epea izango dute egoki iritzitako erreklamazioak aurkezteko Herri-Arduralaritzaren Euskal Erakundeko zuzendariari.

Erreklamaziorik egin nahi izanez gero, epe horren barruan egin beharko da, Herri-Arduralaritzaren Euskal Erakundeak beren beregi prestatutako inprimakia erabiliz. Erreklamazio-inprimakia ebazpen honen I. eranskinean eta www.ivap.euskadi.net web-gunean –euskara atalean, hizkuntza-eskakizunak azpiatalean– aurki daiteke.

Erreklamazioak Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundearen edozein egoitzatan aurkeztuko dira. Halaber, erreklamazioak aurkez daitezke azaroaren 26ko Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen 30/1992 Legearen 38.4. atalak dioen edozein eratan.

Vitoria-Gasteiz, 2013ko abenduaren 18a.

Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeko zuzendaria,
MARÍA TERESA IRURETAGOYENA IBARGUREN.

HERRI ARDURALARITZAREN EUSKAL ERAKUNDEA

ERREKLAMAZIO ORRIA
HIZKUNTZA ESKAKIZUNAK EGIAZTATZEKO PROBAK
(2013/2)

ERREKLAMATZAILEAREN DATUAK

1. abizena	2. abizena	Izena	NAN

EGIN DUZUN HIZKUNTZA-ESKAKIZUNA

1 ☐ 2 ☐ 3 ☐ 4 ☐

JAKINARAZPENERAKO HELBIDEA

Kalea	Herria	Posta-kodea

Posta elektronikoa	Telefonoa

ESKAERA

Toki gehiago behar baduzu, idatzi atzealdean

Langilearen sinadura

……, 2013ko …..…….. (a)ren ….....(a)

Erakunde autonomiaduna
Organismo Autónomo del
EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO